

Baliabideak:

Gure baliabideak 4 taldeetan sailkatuta daude, lehendabizi baliabide fisikoak dauzkagu; gure kasuan baliabide fisikoak ez daukate hainbesteko garrantzirik prozesu gehiena saretik kontrolatzen dugulako, eta funtsean tokia aldatu ahal dugulako adibidez. Baina aipatu beharreko baliabide fisikoak ordenagailuak, aplikazioa diseinatzeko behar izan ditugun tresnak, "smartphonak" (frogak egiteko) eta horrelakoak izango lirateke nagusiki teknologiarekin zerikusia duten tresna gehienak.

Bestetik, baliabide intelektualak eta giza-baliabideak ditugu. Hauek funtsezkoak dira benetan proiektua aurrera atera ahal izateko; gure taldearen sormena eta horrekin aplikazioa sortzearen ideia (proiektuaren oinarritzko-oinarrizkoa), gero baita ere talde informatikoak egin duen lanik gabe ezingo genuke ideia martxan jarri eta proiektua abian jarri benetako aplikazioa ezingo genukeelako sortu. Eta azkenik lan komuna (zerbitzari, enpresa informatikoa eta gure artean) honi esker lortu duguna da; guztiak irabazten ateratzea eta mozkinak benetan denak izatea kudeaketa on baten bitartez eta denon lanaren antolaketa on bat eginez.

Azkenik sailkapenaren azken atalean finantza-baliabideak dauzkagu, gure proiektuan eskuragarri izan ditugun finantza baliabideak hauek dira; gure dirua (aurretik aurreztu dugun diruaren zati bat proiektuarekin hasteko inbertitu dugu) eta hainbat elkarteek eman diguten diru laguntza, hala nola "Bancaja" bankuak 150.000 euroko diru laguntza eman digu eta "BBV" bankuak 50.000 euroko diru laguntza. Diru laguntza hauek diru iturrien atalean azalduta daude, bere azalpena diru laguntza haien "zergatia" da hau da zergatik banku edo elkarte haiek interesa daukaten gure proiektuan zergatik modu ezuzen batez finantziatzen duten.

